

BASQUE CIRCULAR HUBEN INSTALAZIOETAN SOFTWARE ZERBITZUA MODU AUTONOMOAN ERABILTZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

1.1. Helburua:

Softwarea erabiltzeko zerbitzuaren helburua da SimaPro eta OpenLCA softwareak eta Climate&Circularity Calculator tresna (aurrerantzean 3C) erabiltzeko sarbidea eta euskarria ematea, bizi zikloaren analisia eta ingurumen metriken kalkulua egiteko. Zerbitzu honen bidez, ikasleei, enpresei eta bizi zikloaren analisisan interesa duten beste pertsona batzuei tresna espezializatuertako sarbidea eta proiektuak modu eraginkorrean gauzatzeko beharrezko laguntza eskaini nahi zaizkie.

Softwarea erabiltzeko zerbitzuak programa hauetarako sarbidea eskaintzen du:

- SimaPro: Prè Sustainability enpresak garatutako jasangarritasun softwarea. Bizi ziklo osoan zehar produktu edo zerbitzu bati lotutako ingurumen, gizarte eta ekonomia inpaktuak kalkulatzeko tresna profesional bat da, ekodiseinuari, ekoetiketen garapenari, karbono aztarnen kalkuluari edo aztarna hidrikoei aplikatzen zaiena, besteak beste.
- Open LCA: kode irekiko software bat da, eta produktu eta zerbitzuen bizi ziklo osoaren analisiak garatzeko aukera ematen du, doako zein ordainpeko datu baseetatik abiatuta.
- Climate&Circularity Calculator: web tresna bat da, www.ihobe.eus webgunean kokatua, ekonomia zirkularraren eta klima aldaketaren metriken kalkulu integratua egitea ahalbidetzen duena (berotegi efektuko gasen kontabilitatea), eta bai erakundeei bai produktuari aplika dakieke.

1.2. Norentzat:

Zerbitzua SimaPro eta OpenLCA softwareak eta Climate&Circularity Calculator tresna erabiliz ingurumen metrikak kalkulatzeko interesa duten ikasleei, enpresei eta Euskadin bizi den edozein pertsonari zuzenduta dago.

Zerbitzua gradu, master edo doktoretza amaierako lanetarako tresna horiek behar dituzten pertsonari, enpresetako profesionalei eta tresna horiek eskuratzeko interesa duen edozein pertsonari zuzentzen zaie, betiere hirugarrenekiko kontratuen esparrutik kanpo.

2. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

2.1. Zerbitzuaren garapena:

- Softwarea modu autonomoan erabiltzeko zerbitzua modu presentzialean eskaintzen da Basque Circular HUBen egoitzetan. Zerbitzuak SimaPro eta OpenLCA softwareetan eta Ihobe 3C tresnan sartzeko aukera ematen die erabiltzaileei, hezkuntzako, enpresako edo beste helburu batzuetarako proiektuak garatzeko.
- Basque Circular HUBek sarbideak kudeatuko ditu eta elementu hauek emango dizkio erabiltzaileari: ekipoa eta softwarean sartzeko jarraibideak eta, beharrezkoa denean, erabiltzaile izena eta pasahitza.
- Erabiltzaileek softwarearen erabilerari buruzko zalantza tekniko puntualak kontsultatu ahal izango dizkiote Basque Circular HUBen prestatzen ari diren pertsonen komunitateari, eta horiek ahal duten neurrian eta ahalmenaren arabera lagunduko dute.
- Kanal horrek argitu ezin dituen zalantzatarako, zalantzak argitzeko bilerak egingo dira hilerio Basque Circular HUBen egoitzetan. Teams bidez transmitituko dira modu presentzialean artatu ezin diren Basque Circular HUBeko zerbitzuen erabiltzaileentzat.

2.2. Iraupena eta erabilgarritasuna:

- Zerbitzua astelehenetik ostiralera egongo da erabilgarri, Basque Circular Huben ordutegian: 8:00etatik 15:00etara egoitza guztietan. Oporrengatik noiz egongo den itxita kontsultatzea gomendatzen da
- Erabiltzaileak ordenagailu baterako sarbidea izango du bere lehentasunezko Basque Circular Huben egoitzan, zerbitzuan ezarritako ordutegiaren barruan.
- Hala ere, gunerako sarbidea bermatzeko, aurrez erreserbatu beharko da, helbide elektroniko honetan: basquecircularhub@ihobe.eus.
- Garrantzitsua da kontuan izatea erreserba eskatzeak ez duela esan nahi automatikoki baieztatzen denik; hau da, beharrezkoa izango da Basque Circular HUBen baieztapena jasotzea eskatutako erreserba baliozkotzeko. Baieztapena gehienez ere bi laneguneko epean egingo da.
- Zalantzak argitzeko hileko bilerek gehienez 2 ordu iraungo dute. Zerbitzuaren erabiltzaileei hileko bileraren data jakinaraziko zaie aldez aurretik. Bileren maiztasuna aldatu egin daiteke jasotako galdera kopuruaren arabera.
- Bileren garapenerako, erabiltzaileek hilabetean zehar basquecircularhub@ihobe.eus helbidera bidalitako galderak jasoko dira. Galderak zalantzak argitzeko saioa egin baino 3 egun lehenago bidali beharko dira gutxienez.

2.3. Zerbitzuaren mugak:

- SimaPro eta OpenLCA softwareak prestakuntza helburuekin bakarrik erabili ahal izango dira, horien barruan egonik gradu, master eta doktoretza amaierako lanak eta autoprestakuntza prozesuak.
- Ihobe 3Cko tresna hezkuntzakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabili ahal izango dute bai enpresek bai partikularrek. Beti hirugarrenetik kontratuen esparrutik kanpo.
- Zerbitzua erabiltzeko, pertsona bakoitzeko eta urteko gehienez 10 saio ezartzen dira.
- Sistema informatikoen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko, debekatuta dago ordenagailuetara datuak transferitzeko gailuak konektatzea, hala nola USBak, kanpoko disko gogorrak edo beste batzuk.

2.4. Zerbitzuaren erabiltzailearen erantzukizunak:

- Erabiltzaileak zerbitzua erabiltzeko ezarritako arauak eta jarraibideak betetzeaz arduratuko dira.
- Erabiltzaileek aldez aurretik erreserbatu beharko dute espazioa eta ezarritako ordutegia bete beharko dute.
- Erabiltzaileak erreserba bertan behera utzi nahi badu, eskatzen da gutxienez 24 ordu lehenago jakinaraztea.
- Erreserba egin eta erabiltzailea aldez aurretik jakinarazi gabe aurkezten ez bada, zerbitzurako sarbidea eten egingo zaio.
- Basque Circular HUBek softwarearako sarbideak kudeatuko ditu, erabiltzailea eta pasahitza barne, beharrezkoa denean, eta erabiltzailearen ardura izango da sarbide horiek egoki eta modu arduratsuan erabiltzea.
- Erabiltzaileari eskatzen zaio egin duen lana bere biltegira esportatzeko. Proiektuak ezin dira ordenagailuetan edo softwarean gorde. Ihobe ez da erabiltzaileek garatutako proiektuen erantzule egingo eta ez du Basque Circular HUBeko gailuetan gordetako datuen eskuragarritasuna edo osotasuna ziurtatuko. Debekatuta dago ordenagailuetara datuak transferitzeko gailuak konektatzea, hala nola USBak, kanpoko disko gogorrak edo beste batzuk, eta, beraz, lana hodeian biltegitratzeko zerbitzuen bidez bakarrik esportatu ahal izango da.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak zalantzak argitzeko taldeko saioetara joan ahal izango dira. Basque Zirkular HUBek erabiltzaileek bilera horietan ematen duten informazio guztiaren konfidentzialtasuna bermatzen du.
- 3C tresna erabiltzen bada, erabiltzaileak Basque Circular HUBek (*Esteka*) karakterizazio faktoreak eskatzeko eskaintzen duen zerbitzua erabili ahal izango du.

2.5. Konfidentzialtasuna:

- Softwarea erabiltzeko zerbitzuaren esparruan erabiltzaileek emandako informazio guztiaren konfidentzialtasuna lehentasuna da Basque Circular HUBentzat. Informazio horrek, besteak beste, proiektuen datuak, analisien emaitzak, lotutako dokumentuak eta beste edozein informazio sentikor edo konfidentzial hartzen ditu.
- Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamendu konfidentziala bermatzeko beharrezko neurriak hartzen direla bermatzen da. Halaber, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla zerbitzuaren inpaktuaren jarraipena egiteko, eta sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera duzula, lopd@ihobe.eus helbidean.
- Erabiltzaileek partekatutako datu eta dokumentu guztiak konfidentzialtasun maila gorenarekin kudeatuko dira, eta lhobeko langileek eta zerbitzua ematen zuzenean inplikaturako Basque Circular HUBeko teknikari laguntzaileek soilik eskuratu ahal izango dituzte (zeinek, halaber, lhoberekin konfidentzialtasun akordio bat duten).
- Basque Circular HUBek ez die hirugarrenei informazio konfidentziala jakinaraziko, zabalduko edo lagako.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak Basque Circular HUBen egoitzako lan saioetan edo zalantzak argitzeko talde saioetan beste pertsona batzuek partekatzen duten edozein informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzeaz ere arduratuko dira.
- Konfidentzialtasun konpromiso horrek indarrean jarraituko du erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen utzi ondoren ere, eta, horrela, informazio konfidentziala etengabe babestea ziurtatuko da.

2.6. Zerbitzuaren ebaluazioa:

- Zerbitzua amaitutakoan, zerbitzuaren kalitateari eta erabilgarritasunari buruzko feedbacka emateko eskatuko zaie erabiltzaileei, eskainitako zerbitzua hobetzeko.

3. ESKAERA PROZESUA

Eskabideak urte osoan egongo dira zabalik.

Baldintzak betetzen dituen eskabide bat erregistratzen denean, Basque Circular HUBek onartuko du eta baieztapen mezu bat jasoko da. Zerbitzuko plazak elkarren segidako hurrenkeran esleituko dira.

Eskabideen ebaluazioa gehienez 2 laneguneko epean egingo da, eskaera jaso ondoren, Basque Circular HUB zabalik dagoen bitartean.

Programan parte hartzeko interesa duten pertsonak [esteka](#) honen bidez eman ahal izango dute izena.

3.1. Formularioa

Eskaerak formulario honen bidez egingo dira:



Formularioa Basque Circular HUBen webgunearen bidez eskuratu ahal izango da.

Beste zerbitzu batzuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu Basque Circular HUBren webgunea:

- Enpresentzako tutoretza-zerbitzua: [Basque Circular Hub - Enpresak](#)
- Gazteentzako tutoretza-zerbitzua: [Basque Circular Hub – Gazteak](#)

4. INFORMAZIO GEHIAGO:

Helbidea: basquecircularhub@ihobe.eus

Telefonoa: 647 940 819